

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

7.400 hegazti migratzailek baino gehiagok zeharkatu dituzte Nafarroako Pirinioak irailean, negu-tokietara joateko

54 espezie hauteman dira, nahiz eta ugariena enara arrunta izan

Asteazkena, 2017.eko urriak 11

47.000 hegaztik baino gehiagok zeharkatu dituzte Pirinioak irailean, penintsularen hegoaldeko eta Afrikako negu-tokietara joateko, eta, hegazti horietatik guztietatik, 7.439 Nafarroaren gainetik pasatu dira, Lindus mendian bildutako datuen arabera.

Nafarroako gailu horretan ikusitako hegaztiak 54 espeziakoak dira. Espezie ugariena enara arrunta da (1.427 ale detektatu dira), eta, ondoren, miru gorria (1.271), uhalde-enara (748) eta ubarroi handia (730). Horretaz gain, interes handiko beste espezie batzuk ere ikusi ahal izan dira, kopuru txikiagoan, hala nola amiamoko zuria (167), amiamoko beltza (282), belatz hankagorria, mirotz lepazuria eta arrano pomeraniarra. Bertako espezie bereziak ere zenbatu dira, tartean ugatza eta okil gibelbarra. Irailaren 20an igaro ziren hegazti migratzaile gehien; hain zuzen ere, 1.234 enara arrunt. Bestalde, 28an eta 23an 248 eta 240 miru gorri zenbatu ziren, hurrenez hurren.

Hegaztiak bistartzeko jarduketara horiek Lindus-2 mugaz gaindiko lankidetzaren proiektuaren barruan kokatzen dira. Proiektua Aurizko Udalak darama, eta hauek ditu partaide: Espainiako Ornitologia Elkarte (SEO/Bird Life), Ligue pour la Protection des Oiseaux (LPO-Aquitaine) eta Nafarroako Gobernua, GAN-NIK enpresa publikoaren bidez.

Proiektu horretan, negualdi ondoko hegazti-migrazioa aztertzen da; hain zuzen ere, Pirinioetako mendebaldeko pasabidetik egiten dena. Irailean, Lindusen eta Organbidexka lepoan (Akitania Berria) egin da azterketa (24.740 hegazti), baita Aragoiko Portalet eta Somport mendateetan ere (14.849 hegazti). Azaroaren 14ra arte jarraituko du hegaztiak bistartzeko kanpainak.

Hegazti migratzaileak aztertzeaz gain, Lindus-2 proiektuak beste helburu hauek ere baditu: kiropteroak (saguzarrak) monitorizatzea, ingurumen-hezkuntza bultzatzea eta ekoturismoa sustatzea. Proiektuaren % 65 Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (FEDER) jarri du, Espainia, Frantzia eta Andorra arteko Lurralde Lankidetzarako Programa Eragilearen bidez (POCTEFA 2014-2020).